

egiten ari naiz orain. Espainiako gertakarietarako buruz hartu duten jokabidearen aztertzeko soilak hori eta gehiago jartzen du argitan.\* Europar partaidea izan gure duenari, hitzarmen\* ekonomikoak bakarrik ez zaizkio eskatzen, baizik eta politikazko joko erregelak onartzea ere. Bigarren puntu hau azpimarkatzen dute ipartarrek.

Europako herriek izan duten erreakzio hontan, ekonomiari politika nagusitu zaio. Gizonari eta gizarteari buruzko eritzi batzuren\* izenean eta hauk\* finkatzeko asmotan atara da kalera hainbeste jende Europar zehar. Europaren gurasoen ideia ez da gesaldu.\* (Joanes Lekerika)

### Eskuindarren ordua?

Jende asko eta asko beldur da. Geroz eta beldurrago, gainera. Askaturik dabilzen eskuindar horien beldur.

Orma\* zikintzetik hasi ziren. Mehatxuekin\* segitu zuten. Eta orain, kasu askotan, ekintzetara jo dute. Gorabide bat somatzen da. Biolentzia horren aurrean ba-

besik gabe sentitzen da jendea. Ahul\* eta umezurtz.

Azkenaldi hontan indarkerian dabilzen bakarrak, eskuindarrak dira. Nik dakidala, ez dute oraino inor harrapatu. Martxa hontan, segur nago, beldurraren psikosi bat sor baietz.

Jartzen dituzten letreroengatik, telefonoz egiten dituzten deiengatik, lehergai luak botatzen dituzten lekuengatik, zeren kontra dauden behar bada jakin daiteke.

Ezkutuko indar hauek ez dute politikazko kontrakarrik\* onartzen. Sozialki eta politikalki gure egoera pentsatzeko esku bidea ukatu egin nahi dute. Esate baterako, «Comando de la Muerte» delako horrek Katalunian politikarietarako egindako mehatxuetan garbi agertzen da, eskuindarra ez denaz beste soluziorik pentsatzea ere galerazita dagoela.

Justiziak gaurko legedian dituen bideak erabiltzea ere ez dute onartzen. Abokatuak —politikarien defentsan ibili diren abokatuak— beldur dira. Bandrés eta Mendaza, esaterako, zemaipen\* daude.

Apez eta fraide jendea ere ez dabil segur. Jainkoaren Hitzaren argitan gaurko

egoera argitzea ez dute maite. Sermoi baten ondoren, edo etxetik kanpora edo beldurrak eraginda bizi den apezik ezagutzen dugu.

Baina, nire ustez, azkenaldi hontan, beste zertxobait da bereziki jasan\* ezin dutena: Informazioa. Informazioaren beldur dira nonbait. Informatzea propaganda bezala hartzen dute hauek. Zer adierazten du horrek? Informatze hutsa propaganda bilakatzen\* denean, errua ez da informatzearena, egoeraren hertsikeriarena\* baizik. Informatzearen kontra hola egoteak zera ere adierazten du, halegia,\* gizon informatuak biren balioa duela. Ixilduz, ezkutatzuz, gordez, argitara ez eman... nahi izango lukete eskuindar horiek gizartea konpondu. Horrela, konpondu ez baina zapaldu egiten da.

Azken hilabeteotan, periodisten lana arriskutsu bihurtzen ari da. Hemen mehatxu bat, hor bonba bat, han egurraldi bat, ikararen eta indarkeriaren bidez gura luke kazetaria ixil erazi. Eta txarrena: kazetariak babes gehiagorik ez badu, lortu egingo dute. (J. Larrinaga)

# Herriarekin. Herriarentzat.

Lan Kide Aurrezkia.



LAN KIDE AURREZKIĀ

CAJĀ LABORĀL POPVLĀR